



Saria jaso zuten odol emaile hernaniar batzuk, atzo, Etxeberria sagardotegi atarian.

Gipuzkoako odol emaileen elkarteak domina eman zien atzo, 103 odol emaile gipuzkoarri

■ Sarituak odola 25 eta 50 biderrez eman dutenak izan ziren ■ Sarituen artean 26 hernaniar izan ziren, eta horietatik 3, odola 50 aldiz eman dutenak, gainontzeko 23ak, 25 aldiz emandakoak.

GIPUZKOAKO odol emaile elkarteak urteroko saribanaketa bazkaria egin zuen atzo, Etxeberria sagardotegian. Aurten 103 odol emaile ziren sarituak, batzuk 25 aldiz odola eman zutenak eta beste batzuk 50 aldiz odola emandakoak. Hernaniarren kasuan 26 izan dira domina jaso dutenak. Horietatik 23, odola 25 aldiz emateagatik eta 3, odola 50 aldiz emateagatik.

Aurten Hernaniaren txanda
Txandatzen egiten da urtero saribanaketa bazkaria, Gipuzkoako herriren batean, eta aurten Hernaniko odol emaile elkarteari tokatu zaio antolatzaile lanak egitea.

Bazkaria Etxeberria sagardotegian egin zen, eta guztira 140 lagun izan ziren bazkaltzen. Saribanaketa bazkalondoan izan zen. Lehenda-

bizi Sabin Urzelai Gipuzkoako odol emaile elkarteak hitzegin zuen. Urzelai eskerrak eman zizkien bazkaltzen izan ziren guztiei, saritutako 103 lagunei, eta urtero odola ematen duten gipuzkoar guztiei. Gipuzkoako elkarteak lortu duen indarra azpimarratu

zuen azkenik lehendakariak. Gipuzkoako elkarteak 40 urte daramazki lanean eta 400 arduradun ditu herriko elkarteetan. Lanean hasi zirenean urtean 200 poltsa banatzen zituzten eta orain, 32.000 poltsa banatzen iritsi dira urtean.


Lehendakariak hitzegin

ondoren herriz herri joan ziren omendutakoen izenak esan eta dominak ematen, eta argazki orokor bat aterata bukatu zen festa.

Ekitaldian izan ziren, besteak beste, odol emaile elkarteak arduradunak eta Imanol Beroitz Hernaniko Udal zinegotzia. □

SABIN URZELAI - GIPUZKOAKO ODOL EMAILE ELKARTEKO LEHENDAKARIA

“Gauza on asko erakusten ditu gaurko egunak. Batetik, jende dexente dagoela 25-50 bider odola eman duena; eta bestetik, elkarteak sortu zela 40 urte direnean, urtean 32.000 poltsa banatzera iritsi garela (hasi 200 poltsarekin egin ginen). Hala ere, gazteen presentzia guk nahi baino txikiagoa da, bai antolatzen eta bai saribanaketa egunean ere. Datozen urteetan presentzia hori haunditzen saiatu beharko dugu”.



Sabin Urzelai, saribanaketa.

■ ERRUGBIA

Jubenilak 2garren gelditu dira Estatuko Txapelketan

ERRUGBI taldeko jubenilak estatuko txapelketako finala jokatu dute asteburu honetan, Alicanten. Hernaniarrek bigarren postua lortu dute, eta itxura oso ona eman dute, taldeko arduradunek Kronikari jakin arazi diotenez. Lau talderen artean jokatu dute azken fasea, denek denek kontra, eta irabazlea Alicanteko Lavila taldea izan da, jokatu dituen hiru partiduetatik irabazita.

Hernanik hiru partidutik bi irabazi ditu: Madrilgo Moralejaren kontra, 15-10; eta Coruñaeko Xesturren kontra, 19-0. Txapelketaren kontrako partidua 5-15 galdu zuten hernaniarrek.

Plenoa, bihar, Udaletxean

BIHAR Plenoa izango da Udaletxean. Gai bakarra izango dute hitzegiteko: maiatzaren 25eko hauteskunde mahaietan egongo direnak izendatzea. Bihar, 11:00-etan Pleno aretoan. □

SANDIUSTERRI

Hitzaldia: 'Mentes sanas en cuerpos sanos', bihar

HITZALDIA izango da bihar Sandiusterrin, Kutxak antolatuta. Hitzaldiaren izenburua da *Mentes sanas en cuerpos sanos*, eta Kutxa herriz herri egiten ari den hitzaldi jardunaldien barruan dijoa. Sandiusterrin, bihar, arratsaldeko 17:00etan. □

PEÑA OTAÑO ELKARTEA

Urteko afaria, ostegunean

PEÑA Otaño elkarteak urteroko afaria egingo du, datorren ostegunean, maiatzak 1. Afalondoan museko txapelketako saribanaketa izango dira. Afaritarako izena elkartearen eman behar da. □

YONE
boutique
Kale Nagusia 63
Hemen erosiz, Tenerifea joan zintezke
50 euroko erosketagatik zozketarako boleto bat
Zozketa: 2003ko Ekainak 28ko loteriarekin

HATOR
Asesoria
Aholkularitza
Fiskala
Laborala
Kontablea
Administratiboa
Kardaberaz 60
Tel.: 943 55 43 12
20120 Hernani

ETXE ONENAK, S.A.
GARAJE ITXIAK
"OBLATOS"ETAN SALGAI
Informatu eta saldu:
943 33.22.37

IKASTAROA LANGABETUENTZAT
INGLESA: *Publikoari atentzioa*
-INEMek subentzionatua-
209 ordu
Ordutegia: 9:00 -13:30
astelehenetik ostiraletara
Hasiera: maiatzak 9
Bukaera: uztailak 15
Ondi kalea 1
HERNANI
943 333711
943 334227
urolalde

PELOTA



Hernaniko taldea finala irabazi eta gero, Atano III frontoian, iaz.

Datorren asteburuan hasiko da Gipuzkoako herri arteko pelota txapelketa

■ Hernani bigarren fasean sartuko da (maiatzaren 17 edo 18an), eta Anoetaren kontra jokatu du ■ Besagaingo 1go mailako txapelketa, Esnal eta Mendia finalerdietara.

ESNAL eta Mendia finalerdietara pasa dira, Besagaingo binakako txapelketa. Larunbatean Hernanin jokatu zen partiduan, Esnal-Mendiak 22-4 irabazi zieten Ayo-Zubiagari, eta finalerdietarako txartela lortu zuten. Besagain eta Garfeko pelotariak parte hartzen duten txapelketa honetan asteburu honetan ziren jokatzekoak final zortzirenetako partidua, eta, oraindik ez dakigu Esnal-Mendiak zeinen kontra duten finalerdia.

Herri arteko txapelketa
Bestalde, Gipuzkoako herri arteko txapelketa datorren ostira-lean hasiko da, Atano IIIean. Hernani bigarren fasean sartuko da txapelketa, maiatzaren 18ko asteburuan, hain zuzen ere, eta Anoetaren kontra jokatu beharko du. 36 urte dira herri arteko txapelketa egiten dela, eta aurten, 20 herri neur-tuko dituzte indarrak elkarren kontra, iaz baino 5 gutxiagok. Aurten jende faltagatik talderik

atera ez duten herriak 7 dira: Zizurkil, Zaldibia, Eskoriatza, Andoain, Arrasate, Lizartza, Segura eta Zestoa. Iaz atera ez zirenak eta aurten taldea osatu dutenak, berriz, 3 dira: Beasain, Urretxu eta Soraluze.

Profesional ohiek aukera
Aurtengo herri artekoan, profesional izandakoak aukera izango dute jokatzeko, profesional izatea utzi eta afizionatutan urte bat egina baldin badaukate. □

MUSA

Peña Otaño finalerdiak, Aralar tabernako errepekok eta Santa Barbarako klasifikazio fasea aste honetan

■ Gaur jokatu dira Peña Otaño finalerdiak ■ Finala asteazkenean 22:00etan.

PEÑA Otaño elkarteko mus txapelketako finalerdiak gaur jokatu dira, eta finala datorren asteazkenean izango da, afalondono. Txapelketako saribanaketa ostegunean izango da, maiatzak 1, Peña Otaño elkarteko urteroko afarian.

Bestalde, Aralar taberna eta Santa Barbara elkartean ere urteroko txapelketak jokatu ari dira, eta aste honetan partida asko dituzte jokatzekoak: 23 hain zuzen ere. Aralar tabernan errepekoko partidak jokatu dira astelehena eta asteartean; Santa Barbara elkartean klasifikazio faseko partidak izango dira, astearte eta asteazkenean. □

Peña Otaño Semifinalak	Santa Barbara Elkartea
Apirilak 28, astelehena	Apirilak 29, asteartea
Balantza-Balant./Amiti-Sagama	Anton-J.M. anuel/J. Luis-A. Itza
Sagama-Luis/Enrike-Linter	Satur-Xabier/Txarri-Karbs
	Gomota-Pagoa/Javi-Pasego
	M. auria-E. Jan./Antonb-Endoza
	Julian-Karbs/Don-Inulb
	Pabb-Josetxo/Itzi-Txarri
	Loñaz-Cuenca/Jesus-Euken
	Apirilak 30, asteazkena
	Peñe-Genardo/Aitor-Don
	Pabb-A. Ibarra/B. Ibarra-Joakin
	Itzi-Jo. Jn./Karbs-Ceci
	M. anu-Josetxo/Vitent-Fernand
	M. artalen-Julb II/M. kelu-Ibarra
	Amiti-Pako/Gabriel-Pako
	Gabi-Ramón/Sesma-Kaki

KIROLA ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA	Taldeak	Noiz	PELOTA	Taldeak	Noiz
Gorengok	Hernani-Gure Txokoa	9-1	Profesional mailako Txapelketa		
Emakume Kopa	Usubil-Hernani	2-1	Bunzburu	A. Hazabal II-Gabami	08-22
ERRUGBIA			Bibitara	Esnal-Mendia/Ayo-Zubiaga	22-04
Jubenilen	Hernani-Mozaja	15-10	Lauterdiko txapelketa		
Estatuko	Hernani-Lavila	05-16	Kadeteak	Banantes-M. uñoz	22-0
Txapelketa	Hernani-Xestur	19-0	Kadeteak	Gazal-Bamuta	22-6
Kadeteak	Hernani-Atles Sebastian	18-12	O. Iartzungo Txapelketa - Paleta Gomako Finala		
			Nagusiak	M. anis-Ibarra-M. artze/M. endzabal-Nati	19-30

TRABESIAKO ESKIA



Aitor Murua Pierra Mentako frogan, Alpeetan.

Aitor Murua 10garren gelditu da Euskadiko txapelketan

■ Hernaniarrak aurten 5 froga egin ditu, horien artean Pierra Menta, 4 eguneko karrera mitikoa.

AITOR Murua kirolari hernaniarrak bukatu du trabesiako eski denboraldia. Aurten 5 froga egin ditu Muruak eta berak begi onez egiten du aurtengo denboraldiaren balorazioa. Egin duen karrerarik gogorrena Pierra Menta mitikoa izan da. Pierra Menta 4 eguneko karrera da, Alpeetan egiten dena eta egunean 2.500 metroko desnibela igo eta jeisten dena. Murua joan zen urtean froga honetan lesionatu zen, eta aurten bazuen gogoia karrerari neurria hartzeko.

Denboraldi positiboa
Gipuzkoako txapelketa 3garren postua eta Euskadikoan 10garrena eginda, urte ederra borobildu du mendizale herna-

niarrak. Berak ere, aurtengoa urte positiboa izan dela uste du, baina, Kronikari azpimarratu dionez, bera gehienbat, mendiaz gozatzera joaten da froga horietara.

Bestalde, Muruak Hernaniko jendea animatu nahi du hurrengo urtean frogaren bat egitera joateko. Muruaren ustez froga horiek bentaja asko dituzte: karrera bat izateaz gain, atzetik martxa herrikoia joaten da, edozein atera litekeena; martxa herriko horiek oso kontrolatuta daude, eta oso zaila da istripuren bat izatea; larrialdi baterako beharrezko guztia dago prest, eta leku zoragarriak ikusten dira. Inork interesik izango balu harremanetan jarri berarekin. □

FUTBOLA - EMAKUMEZKOEN KOPA

Hernanik 2-1 galdu du Usurbilen kontra eta Kopari agur esan dio

■ Bi partidua falta dira Kopa bukatzeko eta Hernani aukerarik gabe dago ■ Hurrengo Grosekoren kontra.

HERNANIK aukera guztiak galdu zituen atzo Emakumezkoen Kopa irabazteko. Usurbilen kontra zuten atzoko partidua, eta 2-1 galdu zuten hernaniarrak. Kopa bukatzeko bi partidua gelditzen dira, eta

honekin bukatuko dute hernaniarrak aurtengo denboraldia.

Gelditzen diren bi partidua jokatu eta datorren urteari begira jarriko da orain Markos Trejoren taldea. Hurrengo, Grosekoren kontra, Zubipen. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK				
<p>☎ Taxiak: 943 550093</p> <p>☎ Udaltzaingoa: 943 333288</p> <p>☎ DYA: 943 464622</p> <p>☎ Anbulatorioa: 943 006666</p> <p>☎ Jokalari anonimoak 943 331103</p>	<table border="1"> <thead> <tr> <th>ASTELEHENA</th> <th>ASTEARTEA</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td> <p>☎ Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087</p> <p>☎ Gaez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087</p> </td> <td> <p>☎ Egunez: Bilbao-Sagas Urbietan 7 ☎ 943 552941</p> <p>☎ Gaez: Bilbao-Sagas. Urbietan 7 ☎ 943 552941</p> </td> </tr> </tbody> </table>	ASTELEHENA	ASTEARTEA	<p>☎ Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087</p> <p>☎ Gaez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087</p>	<p>☎ Egunez: Bilbao-Sagas Urbietan 7 ☎ 943 552941</p> <p>☎ Gaez: Bilbao-Sagas. Urbietan 7 ☎ 943 552941</p>
ASTELEHENA	ASTEARTEA				
<p>☎ Egunez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087</p> <p>☎ Gaez: Etxebeste Elkano 2 ☎ 943 552087</p>	<p>☎ Egunez: Bilbao-Sagas Urbietan 7 ☎ 943 552941</p> <p>☎ Gaez: Bilbao-Sagas. Urbietan 7 ☎ 943 552941</p>				

IRAGARKI MERKEAK

Esperientzia duen pelukerak Hernani inguruan lan egingo luke. Deitu: **637 09 83 24**

Martxan dagoen Pub bat traspasatzen da Kardaberaz kalean. Deitu: **943 55 06 18**

18-28 urte bitarteko mutil euskalduna behar dugu Hernaniko taberna batean lan egiteko. Interesatuak deitu: **943 55 26 46 - 658 750 896**

Arotz profesionalak etxeko lan txikiak egingo lituzke Hernani inguruan. Behar badezu deitu: **656 78 64 15 (Kepa)**